



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 30eko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren hogeitahamarrean, arratseko zortziak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2024ko apirilaren 26a

Afitzatze eguna : 2024ko apirilaren 26a

5. ERABAKIA: ZERBITZUETAN EUSKARA GARATZEKO AITZINAMENDU KONTRATUAREN 1. ERANSKINAREN ONARPENA (9.1 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du, 2022-2025 aldirako biztanleriarentzako zerbitzuetan euskara garatzeko aitzinamendu kontratua izenpetu zela Euskal Hirigune Elkargoarekin.

Zehaztu du kontratuko 3. artikulua zehazten dituela aitzinamendu kontratuko neurriak: herriko langile boluntario baten formakuntza planaren ezartzea, lan-euskarrien itzultzeko moltsa baten ezartzea, eta ekintza programa baten baitako euskarazko ekintza konkretuen proposamena.

Herri Biltzarrari 3. artikulua aldatzen duen 1. eranskina aurkeztu dio, non bi langile boluntarioentzako euskara formakuntza plan baten ezartzea biltzen baita.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, herriko zerbitzuetan euskara garatzeko 2022ko aitzinamendu kontratuaren 1. eranskinaren proiektua,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari, eranskin horren izenpetzeko bai eta gai horri buruzko agiri oro, kontuan izanik horretarako kredituak badirela 2024ko herriko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 30an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/05/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/05/14an.